

...elkarrizketa

**Haritz Sudupe**

• EGI-REN ABERRI
BATZORDEKO IDAZKARIA •

«Gazte taldeak astero biltzen gara»

Bihar hasi eta hurrengo igandea arte EAJko gazteek EGI-Eguna ospatuko dute Zestean.

■ Aurtengo EGI-Egunari kutsu politiko handiago eman nahi izan al diozue?

Bai, hala da. Kurduei buruzko hitzaldi bat izango dugu larunbatean, eta Lizarra-Garaziko hitzarmena ere izango dugu hizpide. Udalerrien Biltzarrak ere izango du bere tokia. Beraz, egungo egoera politikoaren analisia egingo dugu. Ekitaldi politiko garrantzitsua igandekoa izango da: Joseba Egibar eta Xabier Arzalluzek parte hartuko dute.

■ Lizarra-Garaziko hitzarmenaren ostean gazte taldeen arteko harremanak sendotu al dira?

Harremanak lehen izoztuak ziren. Hitzarmena izan eta gero, kontuak dezentelatu dira. Akordioa gizarteratzeko zer ekarpen egin dezakegun gazteon artean aztertzen ari gara. Alderdi politikoek egin duten garapenik ez dugu egin ahal izan; horrek mugatu gaitu, eta eurek sortutako dinamikaren atzetik goazela esan daiteke. Denbora laburrean, harremanak ez izatetik astero bilerak egi-tertu pasatu gara.

■ Jarrairen aurkako operazio poliziala aurki izango dela idatzi da.

Bake prozesua lehertzeko abian jarri duten kanpainaren beste pauso bat baino ez da.

Jose Luis Aizpuru
DONOSTIA

...esaera

«Jainkoa, bat eta bera nahikoa»

...hizpideak

New Yorketik Bruselara Washingtonen barrena

■ Mehatxua bete da. Agindu bezala, NATOk Jugoslaviako Errepublika Federalari eraso egin dio Belgrad Kosovon egiten ari den triskantza zigortzeko.

Bosniako gerra bukatu eta lau urte geroago bakea ez da nagusitu Balkanetan. 1995. urteaz geroztik suak itzali gabe segitu du han, eta gerra egoera hau erreferentzia bihurtu da kontinente zaharreko geopolitikan.

Kosovoko krisiaren garapenari erreparatuta, ekintza militarra ia ezinbestekoa zen. Bertako albaniarren eta Serbiako gobernuaren artean Frantziak izandako bake elkarrizketek ezin izan zuten gatazka bukatu. Tragediak bere horretan zirauen Kosovon, eta nazioarteko komunitateak erantzukizun moral sendoa zeukan sarraskia geldiarazteko. Horre-

tan ez dago dudarik. Arazoa zera da: nork eta nola ordezkatu behar du nazioarteko komunitatea?

Atzo hasitako erasoak garai berri bat irekiko du munduko estatuaren arteko harreman korapilatsuetan, garrantzi handiko gertaera ekarri baitu: NATOk, bere 50 urteko historian lehendabiziko aldiz, Europa barruko estatu subirano bati eraso egin dio. Mendebaldeko nazioarteko legearen jabetza monopolizatu du, eta aspaldian sumatzen zena -Nazio Batuen Erakundearen botere eta eragin gero eta eskasagoak- frogatu egin da: gizateria eta herrien defentsa era trakets eta aldi berean orekatu samarrean New Yorken defendatzen zen lehen; atzo eskubide hori Bruselak bereganatu zuen Washingtonen onespenerekin.

Patata ustela

■ Hainbat adituren arabera, erabaki salomonikoa hartu du Erresuma Batuko Lorden Ganberak Pinocheten immunitateari buruz. Arrazoia izan bide dute analistek bai Pinocheten aurkakak, bai haren aldekoak gustura agertu direlako epaia jakin ondoren. Kontent egongo ez dena Jack Straw Erresuma Batuko Barne ministroa da, azken batean, lordek haren esku utzi baitute azken erabakia, hots, patata ustela.

Ekimen bateratuen beharra

■ Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu duten alderdiek, sindikatuek eta gizarte mugimenduek manifestazioa eta lanuztea antolatu dute. Modu horretan orain arteko apustua berretsi dute, egoeraren garrantziaz ohartuta. Lizarra-Garaziko taldeek argi azaldu dute bakeari aukera bat eman behar zaiola eta ez daudela egungo prozesu politikoa zapuzten uzteko prest.

Orain arteko mobilizazio bateratuak presoen

eskubideen aldekoak izan dira, gatazkaren ondorio gordinetako bat baretu nahian. Oraingoa, ordea, gatazkari berari dagokio, behin betiko irtenbide bidezko bati jarri nahi zaizkion oztupoak salatu asmo baitute aipatu ekimeneak.

Halaber, ekimen eta inizatiba politikoa non dagoen erakusten du Lizarra-Garaziko taldeen erabakiak. Egoera usteltzen utzi gabe eta etsipenean erori gabe zereginik badagoela azaldu dute.

...pertsonaiak



PILI KALTZADA • *Ur-tximeletak* poema liburua kaleratu berri du kazetari donostiarrak. Bizitza eta maitasunari buruzko barne gogoetatik sorturiko poema intimoak idatzi dituela adierazi du Kaltzadak.



CRISTINA PETITE • Japoniako Mundu Txapelketan erakutsi zuen sasoi bikaina baieztatzera doa Belfastera korrikalari bizkaitarra. Kros laburreko Mundu Txapelketan parte hartuko du hurrengo asteburuan.



JEAN GRENET • Bihar eztabaidatuko da Baionako herriko kontseiluan Errobiko kasernaren antolaketan. Sozialistek, komunistek, ekologistek eta abertzaleek bat egin dute auzapezaren jarrera itxia salatzerakoan.

...datua

10 unibertitatek lankidetzan bul-tzatzeke asmoz hitzarmen berezia izenpetu dute Bordelen. Akitania, EAE eta Nafarroako unibertsiteak harremanak sendotu nahi dituzte.

...adierazpena

«Zenbait herrialdek euren boterea kliman oinarritu dute»

Jose Ignacio Alvarez Usabiaga
Meteorologoa

... seiko urrea

ANDRES URRUTIA

Ordu onean, Augustin!

Izenburua nori lapurtu diodan jakin nahi baduzu, irakurle horrek, lekutara joateko beharrik ez duzu. Izan ere, urte batzuk dira Ondarroako udalak berebiziko omenaldia egin ziola Augustin Zubikarai bertako euskal idazleari. Orduantxe opazion Eusebio Erkiaga lekeitiarrak Augustin Zubikarai ondarrutarrari halako goiburua: Ordu onean, Augustin!

Ondo merezia du Augustin Zubikarai Bizkaiko Aldundiak arestian eman dion «Mañarikua» saria. Merituak aipatzerakoan, euskalgintza eta bizkaieraren suspertze lana aitortu zaizkio, betiko horri eutsi nahian jokatu baitu aspalditik Zubikarai.

Luze joan da horren euskalgintza. Gerra aurrean ha-

si, gerra bitartean ekin eta gerra ostean ere, lan eta lan jardun du Zubikarai euskal letretan, arlo gehientsuetan jorratze eta zirikalari.

Ederkaturak egin dizkio eleberriari zein ipuin idazteari, itzulpen eta kazetarigintzari adina. Gogokoen izan du, nire ustez, eta hala ederretsi ere, antzerkia. Nabarmenak dira haren testuen buruz burukoetan antzerkiaren pertsonaiek erakutsi dituzten teinkada bizi eta eten-



gabeak. Hizkera erraza eta argia, arina, zolia, Bizkai aldeko itsas usainez ondo ziprztindua. Langile aspertuezi-na, nekerik gabe heldu diona herrigin-

tzari. Herriaren altxorra modu askotara bil daitekeela ezin uka. Sarritan, herri hizkera eta euskalgintza goi mailako kulturarekin kontra jarrita plazaratzen zaizkigu, bi-biok herri baten bizimoduan baturiaz izango balira legez.

Maizegi entzun ditugu hala-koak... zahartuegi omen haren lana, argumentuak, hariak; moral kutsuegi... Anartean, herriaren tradizioa galzorian, herriarekin zerikusi handirik ez duen beste zerbaitez ordezkatu.

Tradizionalistegia ote ni ere, atzetik datorrenaren beldur? Ez horixe. Oreka da nire gogoa, lehenaren eta oraingoren arteko tirabiretan ibili gabe, bi horiek harrapatu beharra.

Makaldietan dugu Zubikarai. Ez, oster, erabat habaildua, horren eragineko aldizkaria, Arranondo, mugonean eta hilero heltzen baita Ondarroako etxebizitza guztietara.

Betor, beraz, hasierako hori nire lumara: Ordu onean, Augustin!